

Ezin dute Castejón bigarrenez behartu PAI programa sufritzera

Castejongo eskolak bigarrenez eskatu du PAItik ateratzea. Lehenbiziko eskabidea baztertzeko esan zuten programatik atera ondoko plantillaren aurreikuspenak falta zirela (ez zen horrelako aurreikuspenik izan PAI ezarri zenean) eta programaren jarraipena, ezarrita dagoen taldeetan, Lehen Hezkuntza bukatu arte. Aipatu behar ohiko prozedura izaten dela eskatzea falta diren datuak edo argudiatu behar direnak. Hala ere, ez zen argudiorik eman, hezkuntzaren aldetik, ikastetxeak irteera proposamena oinarritzeko emandako arrazoi pedagogikoei kontra egiteko edo haiek eztabaidatzeko.

Irteera eskabideak dio PAIk ezin duela oztopatu ikasleek edukiak berenganatzea eta oinarrizko gaitasunak garatzea, are gehiago Castejonen: irakaskuntzako hizkuntzetatik bat ere ez da ikasle askotxoren familia hizkuntza, eta maiz umeez eskola lanetarako laguntza behar dute. Horri gehitzen badiogu haurren familiak adierazle sozio-ekonomiko baxukoak direla, garbi dago ezin dutela eskolatik kanpoko laguntzarik jaso haien ikasketetan.

Eskabide horrek Hezkuntza Komunitatearen gehiengoaren onespina dauka: Klaustroaren %78,8rena eta Eskola Kontseiluaren %100ena. Agian, PAItik ateratzeko baimenaren ukazioaren atzean ez dago arrosorik pedagogiari edo antolamenduari dagokienez, baizik arrazoi politikoak, ikastetxe bat ateraz gero, PAI pairatzen duten gainerakoak atera baitaitezke haren atzetik arrapaladan. Carlos Gimeno baimendu beharko lieke PAItik ateratzea hori eskatzen duten ikastetxeei, Gaztela-Mantxako Hezkuntza Kontseilaritzak bezala. Jakina da PSOEko kide batek gidatzen duela kontseilaritza hori eta Carlos Gimeno alderdi berekoa dela.

Castejón no puede ser condenado por segunda vez a sufrir el PAI

Por segunda vez la escuela de Castejón ha solicitado salir del PAI. Para desestimar la primera solicitud se adujeron deficiencias respecto a la previsión de plantilla tras la salida del programa (nunca hubo previsión alguna a este respecto cuando se implantó el PAI) y la continuidad del programa en los grupos en los que está implantado hasta finalizar Primaria. Cabe recordar que el procedimiento ordinario consiste en demandar los datos que falten o que sea menester argumentar. Sin embargo, no se esgrimió ningún argumento educativo que refutara o sometiera a discusión los razonamientos pedagógicos aducidos por el Centro para fundamentar la propuesta de salida.

La solicitud de salida argumenta que el PAI no puede dificultar la adquisición de contenidos y el desarrollo de capacidades básicas, más, si cabe, en un contexto donde una parte significativa del alumnado tiene una lengua familiar distinta a las lenguas vehiculares escolares, y hay una gran proporción de alumnado con necesidades de apoyo educativo, en muchos casos procedente de familias con un índice socio-económico bajo, que no les permite disponer de recursos de apoyo escolar.

Esta solicitud cuenta con la aprobación mayoritaria de la Comunidad Educativa: el 78,8% del Claustro y el 100% del Consejo Escolar. Acaso, tras la negativa a la salida del PAI no existan razones pedagógicas u organizativas sino, más bien, razones políticas, ya que la salida de un centro podría abrir la puerta a un abandono en cadena de más centros que sufren el PAI de forma similar. Carlos Gimeno, debería permitir la salida del PAI de los centros que lo soliciten, al igual que lo ha hecho la Consejería de Educación de Castilla la Mancha, dirigida por un miembro del PSOE, partido al que también pertenece Carlos Gimeno.